

ERASMUS+ LAUDION

Berriz ere Laudio BHI ikastetxeari Erasmus+ proiektua onartu dio Europar Kontseiluak. Orain dela lau ikasturte “A Nod to Our Heritage” proiektua izan genuen eta oraingoan **“Click on Sustainability”** aurkeztu dugu. Oraingo honetan hiru ikastetxerekin jarri gara kontaktuan proiektuan gurekin batera lan egiteko. Ikastetxe bakoitzak bere proiektua du, guztiak garapen jasangarriaren inguruan elkarri laguntzeko, irakatsi eta ikasteko: Lituaniako **Šilutės Martyno Jankaus pagrindinė mokykla**, Silute herrian kokatuta dagoena, Greziako Trikala herriko **7th High School of Trikala** eta Italiako Mantova herriko **ICS di San Giorgio di Mantova**.

-Proiektua zertan datza: Erasmus + proiektua europar ikastetxeek egiten duten proiektu bat da. Ikastetxeak elkartu egiten dira eta guztien artean, aurkezteko proiektuko gai nagusia adosten dute. Ikastetxe bakoitzak bere proiektua koordinatzen du baina zerbait irakatsi eta erakutsiko die beste hirurei.

“Click on Sustainability” proiektuak garapen jasangarriaren inguruan dauden hainbat gai eta egoera ezagutu eta landuko ditu: birziklapen egokia, karbono aztarna, baliabide naturalak, ekosistemen zerbitzuak, Smart Cities, Laudio inguruan jasangarritasunaren egoera zein den,... Ikastetxe bakoitzak beste herrialdeetako egoerari buruz ere egingo du ikerketa lana eta amankomunean jarriko dugu aurkitutako informazioa.

- **Helburua:** “Click on Sustainability” deituriko programak garapen jasangarriaren garrantziaz ohartzea eta teknologia berrietan gaitasunak aberastea ditu helburu. Era berean, helburu bezala dugu nahi duen edozein ikaslek parte hartzea, inklusibitatea bultzatuz. Ikasleek egindako lan guztiarekin, ortu edo lorategi bat sortuko dugu ikastetxean. Nahiz eta proiektua ingelesez izan, gure ikasleek bilatzen edo jasotzen duten informazioa euskaraz egon daiteke.

Ikastetxe osoko proiektua da baina irakasle bik egingo dute lan zuzenean ikasleekin. Ikasleek bolondres hartzen dute parte eta hirurogei ikasle inguruk izena eman dute. Ikasleak dira proiektu honen protagonistak.

Bi ikasturterako proiektua da, 2021eko azarotik 2023ko apirilerarte, eta tarte horretan hiru bidai edo “mobilitate” egingo dira ikasleekin batera eta bidai bakoitzean hamar ikasle inguruk hartu ahal izango dute parte. Oraindik datak zehazteke daude osasun egoera dela eta. Gerta daiteke bidaiarik egiteko aukerarik ez izatea. Horrela balitz, beste modu bateko “mobilitateak” egingo genituzke IKT baliabideak erabiliz.

- **Gure kanpo laguntzaileak**

Kanpotik izango ditugun laguntzaileak Laudioko Udala eta Aitor Saez, biologoa, ikertzailea eta, eta Izoriako ur araztegiko langilea izango dira.